

Getxoko Letren Terrazetara 31.000 bat lagun hurbildu ziren udan zehar

BILBO, 3 (EUROPA PRESS) Getxoko Letren Terrazetara 31.000 bat lagun hurbildu ziren Uztailaren 10etik abuztuaren 31ra biartean, arduradunek ohar baten bidez jakinarazi zuten. Iaz, 27.000 pertsona gerturatu ziren terrazetara eta, aurtengo emaitzen aldean, bisitari kopurua %14,8 gehitu egin da, nahiz eta udan egon den eguraldia oso aldakorra izan. Adierazi zuten, Letren Terrazak hogeita hirugarren urtez jarraian atera zituzten liburuak kalera, helduen eta txikien gozamenerako. Aurten, gainera, txikientzako ekitaldi berriak antolatu zituzten, "haurrek ezin hobeto hartu dituztenak", "Antzinako jokoak", "Baretze eta elkartasun jokoak" eta eskulan tailerrak, besteak beste. Urtero bezala, liburutegiek hiru tokitan bultzatu dute irakurketa, Areetako eta Algortako Geltoki plazetan eta Andra Mariko Sarri plazan. Leku horietatik pasatako erabiltzaileak adin guztietakoak izan dira, "nahiz eta haurrak nagusi izan". Ohi bezala, irakurgai-bilduma berezia hautatu zen liburutegietarako, udan irakurtzeko aproposa, hain zuzen ere. Guztira, euskarazko eta gaztelaniazko 2.500 bat liburu egon ziren terrazetan. Udako liburutegiak izateaz gain, Getxoko Joko eta Letren Terrazek aisialdirako guneak bilakatzea dute helburu nagusi eta aisialdirako gunea "oso arrakastatsua" izan da aurten, horren eskaintza bultzatu baita. Batetik, ludoteka bat eginez lehenengo aldiz, bertan antzinako eta baretze eta elkartasun jokoak egon direlarik. Bestetik, eskulan tailerrekin terrazetan astelehenetik ostiralera. Azkenik, Udako Liburutegien eskaintza osatzeko, irakurtze-gune bat kokatu zen Fadura kiroldegian. Bertan, postu bat kokatu zen eta erabiltzaileek, euskarazko eta gaztelaniazko 200 bat liburu irakurtzeko aukera izan zuten uztailaren azken astetik aurrera.